

13. Newslettera Azaroa 2024

Euskadiko Behatoki Turistikoak **2024ko iraileko Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoari** buruzko koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du, **2024ko urtarriletik abuztura metatua eta araututako turismo-ostatu guztiei buruzkoak**. Gainera, barne-merkatuko biztanleriak Euskadin zehar bidaiatzeko dituen motibazioak aurkezten ditugu.

EUSKADI BARNE-MERKATUARENTZAKO TURISMO-HELMUGA GISA

Barne-merkatuak Euskadi turismo-helmuga gisa aukeratzeko motibazio nagusiak **bere natur-guneak (%56) eta Euskal Kostaldea, bere ingurunea eta hondartzak (%54)** dira. Bigarren mailan, gastronomia (%47) eta ondarea, artea eta kultura (%43) aurkitzen dira.

Belaunaldi gazteenek, Euskadin zehar bidaiatzeko motibazio handiena **gastronomian, Euskal Kostaldeko helmugetan eta bere inguruneetan aurkitzen dute; baita hondartzetan eta festa herrikoietan ere.**

40 eta 64 urte bitarteko biztanleen kasuan, arteari, ondareari eta kulturari ematen diote garrantzi handiagoa.


Azkenik, bizilekuak ere desberdintasunak markatzen ditu Euskadira bidaiatzeko motibazioen eragina baloratzeko orduan. Horrela, **Barnealdeko edo Errioxa Arabarreko udalerrietan bizi diren herritarrek garrantzi handiagoa ematen diete erosketak egiteari edo jai herrikoietara joateari, hiru euskal hiriburuetan bizi diren pertsonekin alderatuta, hauek neurri handiagoan bisitatzen baitituzte naturguneak, eta Euskadiko ondarea, artea eta kultura**. Euskal Kostaldeko udalerrietan bizi direnek, berriz, gehienbat **gastronomiaz eta naturguneak bisitatzeaz** gozatzen dute.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu estatistika operazio ofizialaren txostena: ["Turismo-ohiturak eta turismo hartzaileari buruzko pertzepzioa, 2024"](#)

2024KO IRAILA



Euskadik irailean eguneroko plaza-eskaintza handiago bat erregistratu du, **+%2,4** (62.498), eta **eskari-adierazleetan hazkunde arina** lortu du 2023ko irailarekin alderatuta: **gaualdiak +%0,2** (983.527), eta plaza-okupazio maila **+%0,2** (45,10%). Aldiz, **sarrerak -%0,6** (461.953) **jaisi** dira.



Hotelak (Euskadiko eguneroko plaza-eskaintzaren %60a) **plaza-eskaintza handitu** dute irailean, baina **eskari-adierazle guztietan beherakada** izan dute. **Albergue turistikoak**, berriz, irailean **eskaintza eta eskari-adierazle guztietan igoera garrantzitsuak** izan dituzte. **Apartamentu turistikoak** ere irailean **goranzko joera** izan dute, **plaza-okupazioan izandako jaitziera** arina izan ezik (-%0,5). **Nekazaritza-turismoko ostatuek**, aldiz, **plaza-okupazioan bakarrik izan dute hazkundea** (+%0,3). Eta **kanpinetan**, eskari eta eskaintza-adierazle guztietan **jaitsierak** izan dira.



Helmuga guztiek eguneroko plaza-eskaintza handitu dute hil honetan, irailean. Hala ere, **Arabako Errioxak** bakarrik itxi du irailla **eskari-adierazle guztiak positiboan** izanda.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2024KO IRAILA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

| JATORRIAK | SARRERAK 2024 vs 2023 | GAUALDIAK 2024 vs 2023 |
|------------------|-----------------------|------------------------|
| Madrilgo Erk. | %1,6 ↑ | %5,6 ↑ |
| Euskadi | %12,5 ↓ | %4,2 ↓ |
| Frantzia | %5,6 ↓ | %6,8 ↓ |
| Katalunia | %8,6 ↓ | %6,1 ↓ |
| Erresuma Batua | %10,2 ↑ | %16 ↑ |
| Estatu Batuak | %6,8 ↓ | %4,5 ↓ |
| Alemania | %3,1 ↑ | %1 ↑ |
| Andaluzia | %13,3 ↓ | %14,1 ↓ |
| Herbehereak | %7,5 ↑ | %8,5 ↑ |
| Valentziako Erk. | %1,2 ↑ | %6,7 ↑ |

Merkatu internazionalak merkatu nazionalak baino kuota altuagoa izan du, %56 vs %44, eta %0,3ko hazkundea izan du 2023ko iraileko datuekin alderatuta. Aldiz, **merkatu nazionalak %4ko jaitziera** izan du.

Hamar merkatu igorle nagusien artean, hazkundea izan dutenak **Madrilgo Erkidegoa, Erresuma Batua, Alemania, Herbehereak eta Valentziako Erkidegoa** dira.

Rankingaren buruan daude, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa** (%10,6), **barne merkatua** (Euskadi) (%7,9), **Frantzia** (%7,2), **Katalunia** (%6,6) eta **Erresuma Batua** (%6).

2024KO URTARRILA-IRAILA METATUA



2024ko **metaketaren balantzea positiboa** izan da Euskadirentzat, igoerakin honako arloetan: **sarrerak, +%4** (3.711.869); **gaualdiak, +%4,1** (7.939.955); **plaza-okupazio maila, +%3,7** (42,70%); eta **eguneroko plaza-eskaintza, +%2,4** (58.283).



Ostatu mota guztiek hazkundea izan dute eskaintza eta eskari adierazleetan, **landa-ostatuen kasuan izan ezik**. Landa-ostatuen **plaza-eskaintza %2,1 murriztu** dira, **gaualdiak apur bat jaitsi** dira (-%0,2), eta **turisten sarrerak ere beherakada** izan du (-%1).



Adierazle guztietan igoerak izan dira Vitoria-Gasteizen, Donostian, Euskal Kostaldean eta Arabako Errioxan. **Bilbon eta Euskadiko Barnealdean**, berriz, **eguneroko plaza-eskaintza murriztu** egin da, eta **turisten kopurua eta gaualdiak jaitsi** dira. Halaber, **Barnealdean plaza-okupazioa %1 jaitsi** da.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2024KO URTARRILA-IRAILA METATUA.

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

| JATORRIAK | SARRERAK 2024 vs 2023 | GAUALDIAK 2024 vs 2023 |
|------------------|-----------------------|------------------------|
| Madrilgo Erk. | %1,1 ↑ | %1 ↑ |
| Frantzia | %0,6 ↑ | %0,1 ↓ |
| Euskadi | %4 ↓ | %2 ↓ |
| Katalunia | %4,8 ↑ | %4,4 ↑ |
| Estatu Batuak | %9,8 ↑ | %9,5 ↑ |
| Errasuma Batua | %13,4 ↑ | %16,3 ↑ |
| Alemania | %3,1 ↑ | %5,2 ↑ |
| Andaluzia | %14,1 ↓ | %14,2 ↓ |
| Gaztela eta Leon | %3,2 ↑ | %3,6 ↑ |
| Valentziako Erk. | %6,8 ↑ | %7,4 ↑ |

Turisten **%51 merkatu nazionaletik** dator. Hala ere, **merkatu internazionalak urte arteko hazkunde handiagoa** izan du, %7koa, eta 2024an **serie historiko osoan kuota altuena** lortu du, %49.

Hamar merkatu igorle nagusien artean lau merkatu internazional daude: **Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Alemania**. **Beharakada** izan duten merkatu igorleak, **turisten kopuruan zein gaualdietan, barne merkatua (Euskadi) eta Andaluzia** dira. **Frantziako merkatuaren kasuan, gaualdiak %0,1 jaitsi** dira.

Rankingaren buruan honako hurrenkera hau dago: **Madrilgo Erkidegoa** (%12), **Frantzia** (%10), **barne merkatua** (Euskadi) (%9,4), **Katalunia** (%8) eta **Estatu Batuak** (%4,4).